Inguru hautaco Gazeta guziek-gorrien-gorrienetarić, churien-churienetaino - ez dute boz bat beizić ukan M. Ithurrart gaicho zenaren merzimenduen eta laudorioen kantatzeco - Zure Gazeta - Eskualdun ona - behartzen bakarrić yaun horren beltzteat, gibeletić, esaiatuco zena. Hori frantsesez deitetzen da ene ustez: "donner le coup de pied de l'âne".

Zure Gazetaren arabera etzen yaun hoi (herrian, hauz-aphez gisa, bide eta holako ongi zerbeit purruchkila eginagatić ere) gizon inkapable, banitatez bete eda hauntu bat beizić, tzarreko aldeat yaiduraz betea.

Artikulu hoi zure fuilan, egun zortzi, irakurtu duten guziec izan dute bihotza erdiratua lenguaia indigno hortaz.

Zure "Korrespondantac", bere lunetekin, ikusi zuen 1898 an kantoinamenduco argituenec edo "Majoritaleac" baino hobiki yaun hoi baino kapabliagoac eta dignoaoac bazirela Arrondizamenduco Contseiluco baten egiteco - Zertaco beraz Uztaitzco kantoinamenduco boz emailiec hautatu =

Zuten gure hauz-aphez maitea Zure "Korrespondant" horren eta hoi idurien egin ahalen coutra? Zertaco geroztic huna Yaun horren Zerbitzuec eta bihotz handiac bere ganatu ditu, orduen horren Kontra Zirenetaric gehienac ere? Eta nola oraino heldu den Uztailean ere murde Ithurrart zena Kantoniamenduco guziec arra-izendatu goo zuten, ez balinbazen Kapable Kargu horren betetzeco?

Haren orduco "Konkurrant" leyal eta ohoragarriac berac errespetatzen zuen M. Ithurraren Kaatera eta horren ongirateco Karra. Zu behartzinez bakarric, Korrespondant ilhuna, barne-beltz eta herratsu hoi atchikiko zuena. Ezin ireitsi duzu bizi zelaric ezin garraitu ahal izatia eta Yainkoac bere ganat deitu duenian nahi izan duzu aurdiki zure pozonia, orhitu gabe ere uzten zuela lur huntan, haimbertze obra onetkin, alarguntsa bat guziz gainetic errespeta garria eta ahaide andana handi bat ezin guehiago ohoragarriac!

U. Ithurrartec zer onac eginduen Arrondizamenduco Kontseiluco membro gisa, haren Ahetzeco, Arbonaco, Sempereco, Larresoroko, Uztaizeco Yatsuco eta bertze haimitz herritaco adichkide handiec erran lezakete.

Gu =

Gu Kontentatuco gare bere herri ttipi-hani maite zuen huntan egin tuen obra preciatsu zenbeitez izendatzeaz edo aiphatzeaz.

Zu idurikako batzuec, zure mozen berac aintzinean emanez, atchiki zuten Yaun hori erregretatu hori luzez herrico aferetaic urrun-Azkenian Halsou-arren arrozoniatzeco manera argitu zenian eta heien zentzu Comuna gainditu, M. Ithurrart, braba guzien gatic, arribatu zen "Mairiarat". Bai segur ondicotz herriaren abantailetan!

Horren lehembizico lana izan zen bazter guzietarat bide ederren egitea; gero egin zituen zubi eta akeduka edo errekа-estoli frango.

Sakristania eta Erretoraenia ustel-duic erortzerat baitzohazen, lehena arras aurdikiric berri berria egin zuen, handiagoa eta edevragoa, bere sakelatic; eta bigarrena dena berritu beheretic gaineraino. Costa ardietsi zuen herrian eta gisa hortan fagoratu Yatsuco, Larresoroco eta Halsou-co Yendeac. Herrico-Etche bat egin izandu bere diruz, ederra eta nasaia, eta bimila libera baino gehiago balio duen arloia edo orena, bere ezkilarekin, plantatu etche horren puntan.

Pobren fagoretan establitu du

„Bureau de Bienfaisance" deitzen den sokorri bat urtian ehun bat libera arrandaekin.

Berrikitan hilden Yaun "Kalonyac" lurra nahi izan balio eman eliza berri bat ya egina izanen zuen ederra.

Igan urtian oraino egin izan du hain maite zuen gazteriarentzat pilotaco errebot edo plaza pullit bat dena harri pikatuz (~~eta obra hoi outsa finitzeco bertze plana on bat bazuen~~) Eta egun hautan Yainkoac permetitu balio electrikaren eta telegrafaen plantatzeat zoan herrian, eta hoic guziac herria zantimabatez kargatu gabe eta herrico lur zatiric ttipiena ere saldu gabe. Ez dugu aiphatuco nola Gobernamenduac Kontseiluen abisua galde egin zuenean, bere Kontseiluari baia emanarazi zuela bihotzez eta yeneroski seroren Kontserbatzeco = Zure „Korrespondanta", bere lunetac salduic ere, kapable izanen othe da sekulan horren bertzeren egiteco?

Esperantza dut, yaun Gazeta egilea, letra hau emanen duzula helduden ortziralekо "Eskualdun onean".

Herriguziaren eta Kontseiluaren izenean eta phartez,

Halsou-co Achuanta,

J. Mainguyagus

REPUBLIQUE FRANÇAISE
MAIRIE DE HALSOU
(BASSES-PYRÉNÉES)

"Santa Catalina"-ri buruzko

Yann Casetta eguilea
Ematen darosquisut 6 pertsu
Sara olhaaldeco patroina Santa Catalinari
emanac saisconac

Airea douthé atsar gaiten atsar lotaric
1en pertsua

Santa Catalin Certutosa
Bergin Martir Couraiosa
guretsat Sare arrarteco
Oigure patroin puchanta
2 garen pertsua

Filosopho famatu horiecc
Creaturetan yaquintsun
Bainan Sou creatsailearequin
Laster ditutsu Centsutu
3 garren pertsona

Trusquia Soin den ederra
Bai ilhargui isarrac ere
Bainan horien Creatsailea
Hainitsez ederragoa

4 garren pertsua

Oi gure mende triste hunée
Fedea du attacatsen
gure patroina sure mendea
Martiree du coronatsen

5 garren pertsua

Gue ere fedea badugu
Bai eguiasqui sinesten
gure patroina Othoitz eguisu
eman desagun obrettan

6 garren pertsua

Agur Maria gure ama ona
Seru lurren erreguina
Asquen oremian beira gaitsatsu
Satanen escuetarie

Bethi erre fraina bertsu bacotchian
Santa Catalin bertutossa

PIE, Hippolyte

8ème

Atzseguin hartu dukezu, hori eskuraturik;
Etçhian bazinauden ere, lehenekua hautsirik;
Menturaz ez duzu ibili, oraino zilharrestaturik;
Zilharraren dirdira hortan, ez balimbadu phomurik;

9ème

Erranada zahartziak, ez duela ontzen guizona;
Ez dukezu aise bildu, horrelako adina;
Lehenago igorri gabe; laphurtarrer phozoïna;
Azkenian declaratuda, zure sabeleco mina;

10ème

Laphurtar bat, bazineza; khausi uste gabian;
Arrazoin hori zinioïa, erran buruz buruan;
Ala khambia çinio, faltsukeria barnian;
Hurbil, ala urrun beharda, arrazoïn bera mihian;

11ème

Laphurtarra yaliz gueroz, bere herritik kamporat;
Ekharria da guizon prestu, guzien onthatzerat;
Gaizki mintzaturik yuan zira, bitorios garazirat;
Içhilik utziz bertzaldian, einen zinuen ahorat;

12ème

Lehengo zaharretarik, bannen aditzia;
Gaizkiaren pagatzaile, çela bethi onguia;
Guisa berian guerthatuda, oraico çure aldia;
Dudarik gabe gauza hori, ez ditake khambia;

13ème

Yoanesek ene izenaz, zangoa baderasa;
Hortarik ongui agueri-da, nola dakien frantsesa;
Hori eguia izaiteko, escas du laugarren hitza;
Ez badaki mintzatu gabe, aitzinetik ikhas beza;

14ème

Niri trufa dariotala, zuk diozu yoanes;
Deusik etzinuen entzunen, zuhaur içhilic egonez;
Zure ondotik mintzatu niz, khasuja hola izanez;
Etsamina zazu orai, entzutia lakhet denez;

15ème

Pieton ala zapatain, ala laborantzan;
Diozu oro yastatuz, naizela naski arizan;
Arrantier biçitzeko, ez dut onthasunik izan;
Bainan ez nago gogota, bakharra othe-nizan;

16...

Lanetik bizi naizena, ez naiz, munduan bakharra;
Zer nahitan armadin ere, ez da çure affera;
Izpirituak arguitzen banau, hainitz lan suertatara;
yalkin zazu cin ahala; badudala nic etçhera;

17

Bekhoz-bekho sequeretuko çure bi solas bakharrak;
Bulhar onak dituzketbainan, beharriac laburrak;
Hori eguin daut duda gabe, ez eyhera-zain beharrak,
Enez kontent ebzirenian, baditu zketzu ederrak;

18...

Henezortzi bertsu azkenak, ezarri daitzut Copian;
Hoc iakusturen tutzu, eskuratzen zaitzunian;
Ongui bici zaite yaunes, Garaziko pLartian;
Eta bakhia eman guri, Lapurdiko aldian;

Hitzpohzte Jie
Haz pantaara
7 Fevrier 1924

yaun Caseta eguiten hetan Caseta bakhu pochi bat
Balin badu zu, Lortaz bethetako duzu, yoanesek iracurditzan

Dembora bercan zu eta ni trinquetian ariko guiro ichtant
Bat luzean, bainan yoanesek dion bezala, lapurtarrak gure
kintaleco tripetin ez baiguiza aise plegatzen, eta sik
at khitzen baikgira, hango dugu sei ayokhotaric,
akort bagina guazes laste, aitzinagoko Casetan çinioen
bezala, bertsolari guziek kintze bat escas guinuela;
yauna Lori banakien asmatü, demboraren gostuz nihaurk
ezagutua, bainan kintze bat bgati da, Zuk

Ene azkenecko lamabi bertsuen khendu ditzazu
bira kintze, plentsatzen dut ortoz eguin nahiz
eguin duzu bainan gaizki eguin duzu, etzirien
uste gabe ezarriak, laguanen lerro bathatcharen
finitzean, bai uste marra erdiren barnian bira
hitz, ezvintan lanjon airean, ez baititzake eman
lek gabe; ez du balio laatiki berriz emaitea

12.1

yadanik Leyek chahartuac dire, bainan nik emaitez
Pitudanak airean ez dute makhurik ~~izan~~ izanen
Leyen airea mutikan notaturik igorri banautzu bi solas
bek ezarriak izanen zuzen, d'après un silence de Huitieme de

Soupir

eta bola bertsu bathatchiz bira solas edo bira kintze
khendutz, helduda, lamabi bieko 24 kintze, orai
partida çuzea da abotha zazu dirua eta ezar

Ezkenecko Jakelan

Çuse Çelhaygarai

Jie

Pie Hasparrac bigarren errepostua maneçki adizaileac

1.ª

Garaziko alde hortarik, hasirikan lis Lizta;
Lapurdi ere lasarazi, baiterauku elheketa;
Nahi luke landatzia, gaizki mintzatu-eta;
orok dezagun adora, goanes garaztarren aita;

2.ª

Orai çuri mintzo naiz, garaztarren aitachu;
Niri ere zabarrekin, lakhet zeraut eta gocho;
Maiz zabarrek badukete, gaztentzat exemplu asko
Zeren gaztek maite dugu, usu çerbeit berri fresko

3.ª

Donapaleun ditxutela, çure bertsuak onhartu;
Ezagun-da etzirela, arrazoin hari ohartu;
Çhuberotarren izenian, baitzira gutaz trufatu;
Çerendako behartzinen, gure Frantzez occupatu;

4.ª

Phantz landiak, ala Hipiak, no gaincoak eguinak;
Ez dirare behar burlatu, lak mundian eguin lanak;
Elgarren ezagutzekotan; diferentziac eguinak;
Bat-bertzia nola ezagut; oro izanez bardinak;

5.ª

Lehen aldia çinuela, deradazu bertsutan;
Naski etzinintzen forni, gu burlatu gabe Letan;
Ez bazine hola mintzatu; zure arrazoin-bzarretan;
Nik utziko zinintuzan, ichilik zure ezohuetan;

6.ª

Ni ez nitzaitzu yazarri, çuri bekhaitzkeriatik;
Nortzuren ezagutzeko, ez baitut nihorerik;
Sujeta-eman duzu lehenic; bertsutan ezarririk;
Erten duenac ez dioja, adi errepostu rik;

7

Diozu zure makhilak, nagoela ni gelos;
Zurekin duzulakuan, gaztaikitzen segun oroz
Behartetan balin banintz; banakike. hun eroz
Bainan ez guira. hapurtarrak; makhilekin hoin ados

Hasparren k[e] 9. 7.bre 1908

Gaur Caseta egilea

Goanden otsailaren 7an igorri naitzun
18 bertso, elganekin; goanes garaztarrak,
irakurtzitzan; Gaseta escuetsinean,
bainan oraino etzeditagu ikhusi, nahi
gaitzetu çaitzuna, nic igorriric, zu kintze
k'lenda çinintuela ene 12. bertsuetarik,
bainan hutcho eguia, eta egiak ez du mendik
both; çuk ere igorri çinuen bertsu bariek
kintze bat eskas ginuela, ez bazera
içaiten minbera; gu ere ez gira hala
izanen; eta abisatzen çaitut hazparren
ikhusi nahiak ditutzula, escuadunean 18
bertsu lehk, ezarriko ditutzu, lehen caseko,
eta nik igorriak ez badituzu bertzerenak
beçala ezarri nahi, entseatuko naiz, adichidé
çombaiten mintzatzerat ezpar-arazteco, cantitico
dut etsai bana quehiago, esperantzarekin

ezarriko ditutzula, iguriki-men hortan

Errezebituco ditutzu
Ene Sentimendu
Errespetagarrienak

Pd.
Lie
Hatzarres

DUHAU, G.

13

Monsieur l'abbé. 13

Dimanche dernier j'ai entendu un jeune homme chanter les couplets ci-inclus. Le désir du versificateur serait que la paix soit entre Zango et le Bar. Navarrais. Comme sérieusement l'Eskualduna manifestait le désir d'avoir quelques poésies voyez si on peut les imprimer.

Votre tout dévoué

G. Duhau

PABOILLETA, Jean Baptiste 14

Airea: Nahi balimbagira hil eta salbatu.

.1.

Esskual herri huntako zombeit bertsulari
Hasarre handian dire naski yarri
Kantu emaiten dira hasiak elgarri
Horien aditzia baita izigarri
Eta harrigarri
Nola diren ari
Zernahi iduri
Ororen iringarri
Elgarren yelosiaz dira yazarri.

.2.

Esskualdun kasetan dugu irakurtu
Bi yaun nola diren elgarri mintzatu
Batek bertzeari du liphista phentsatu
Zerbait uste gabetan harturik afruntu
Burua altchatu
Bai eta yazartu
Urrundik bilhatu
Eta occupatu
Afera iragana nahiz chuchendu.

3.

Yakintsunak direla ez da dudatzeko

Elgarri horrembertzeren erraiteko
Herra sarthu zayote naski sekulako
Bihotzean sarthuz geroz neke da khentzeko
Ez da fidatzeko
Zer den gerthatuko
Yaun horiendako
Hola cherkhatzeko
Auzitarat diren othe yuan beharko.

4me

Ichilik egoitea dute hoberenik
Thastikarazi gabe nehun yenderik
Zer dute atherako hola arizanik
Nik ez nuen phentsatzen bazela guizonik
Kasu horren gatik
Okupatzen zenik
Dembora yuanetik
Hola guibeletik
Nork behar zuen phentzatu holakorik.

V.

~~Guiz~~ Gizona bere faltaz begitan yartzia
Hori ez daiteke izan zuhurtzia
Errespeta dezagun bertzen errentzia
Basterrerat utziz gure malezia
Har pazienzia utziz fantezia

Bertzen cherkatzia
Hola ibiltzia
Hori gabe errech baita bizitzia.

VI.

Hori laite munduan gukegin beharra
Hori aspaldiko erran ozaharra
Guzien dako baita exemplu ederra
Sinhetzi behar dugu ene arabera.
Ikhuziz basterra
Beha gutartera
Oy gure manera
Hola den aharra
Gutartean berean kasik sartzera.

VII.

Oraiko eguneay zer dugu ikhusten
Gure erligionea dute ukhatzen
Fraide eta seroiak hasiak kasatzen
Ez dakit zertan duten makhura khansitzen
Orori yazartzen
Disputa cherkhatzen
Itsuski mintzatzen
Pagak galarasten
Yende chehiak ditu oro patitzen

VIII

Esskual-Herriak oro diten egoy chutik
Gaiten guziak othoi egon askarik
Guzien indarrak batian emanik
Ein ahala eguinez oy gure aldetik
Bihotz bihotzetik
Elgar maitaturik
Eta lagunduriik
Sokhori emanik
Yainko ajauna arartekotzat harturik.

IX.

Esskual-Herrietako bertzularieri
~~Otsemplu~~ Contseillu bat nahi dut emay orori.
Guziek utz dezagun kostumatzar hori
Yainko leguean bizi gaiten ongui
Ez eguin nehori
Ez dugunik nahi
Khasu eman huni
Zer daukan kombeni
Orhoituz artetan bertze munduari.

J.n B.te Paboilleta

POCHELON, Arnaud

15

15

ESKUALDUN ONA

Journal Basque-Français

Paraissant tous les Vendredis

BUREAUX :

- RUE GAMBETTA -

St-JEAN-DE-LUZ

9, RUE JACQUES LAFFITTE, 9

BAYONNE

N° .....

St-Jean-de-Luz, le 25 Mars 1904

Honoré Monsieur l'Abbé,

Par ce même courrier, sous pli séparé, je vous adresse un article basque sur Amendeuix.

Vous n'ignorez pas que la semaine prochaine nous avons la semaine sainte et que nous avons l'habitude de devancer d'un jour le tirage du journal.

Voudriez-vous prévenir Mr le Supérieur et Mr l'abbé Adéma de vouloir bien envoyer leurs copies un jour plus tôt, le journal devant être tiré et expédié jeudi matin.

J'ai déjà écrit, ce matin, à Mr le docteur Constantin pour qu'il préviesse à son tour Mr l'abbé de Menditte et les autres rédacteurs souletins.

La marche en avant du journal continue, nous tirerons aujourd'hui à 3.750.

Votre tout dévoué

Arnaud Pochelau

GETTARI

- 'Atzar gaiten...'

16

Copie d'imprimés.

16.2



Monsieur l'abbé Hiriart-Urruty,

Professeur au Petit Séminaire,

Larressore.



Atzar gaiten!...

.~.~.~.

Mendeen erditan mundu guzia alegrantziaz eta bozkarioz bethe behar zuen gaua bazterretan hedaturik zen. Negu bihotza baitzen, borthuetan artzainak, su handi batzu eginik, arthaldeen zain, erdi lo, uzkurtuak hotzarekin, han zagoen, berri handi baten aiduru bezala. Eta betbetan, gau izar arthe ederraren erdian, huna nun zerutikako kantu gozo batek iatzarrarazten dituen, oihartsun guziak hitz lausengagarri hautaz inharrotsiz:

"Laudorio Jainkoari zeru gorenetan, eta bakea lurrean chede onezko gizon guzieri. Altcha zaitezte bada, atzar, gizon maiteak huna nun ezen Jainko bat sorthu zaitzueten Betelemeko barrukian!"

* * *

Ai Eskualdun laborari maitheak, gutiz gehienak ezen Eskual-Herrian laborariak gare, ala garen lurreko, ala izpirituko lanetan jorran hari, eta bertzeen ganik deus ez dut nahi, deus ez dira hek, deusetako ez, sural aurdikhitzeko baizik, Ebanjeliuak aiphatzen dituen aihen alferren gisa; —

Eskualdun laborari maitheak, bertze gisa bateko gau bat azkeneko zonbat denbora hautan munduaren gainera jautsia zauku. Aro hitsak juan ditzauzkigu, udarik ez dugu ikhusten ere, gau hotz eta pherdeak, ez iguzki, bai hil-argi, aro beltz halako batzu.

Eta gure erresuma maithearentzat guziz! Gu, Eliza Sainduaren lehen haurrak, gure ethorkisuna oraino hitsagoa dakusagu! Hauk dira egiazki, gisa hortara pentsatuz, hauk aro hitsak, munduko bertze jenerazione guzien gainean lehen gindaukan lerroa ere galdu baitugu. Gure ahalak ezinduak ezagutzen ditugu. Bazter orotarik ilhunbek hartuak gituzte. Arteka, chimizta zonbeiten gisa, kalerna jin artean, ather-aldi batzu egiten baditu, norbeit mintzatzen bada, hobeki erraiteko, hara!!! Gero akhabo.

Norat nahi itzul gaiten, bazter guzietarik halako hil

usain bat heltzen zauku, nunbeit zerbeit ~~tut~~ ustel balitz bezala.

Bai, egia erran behar da, aro hitsa, biziki hitsa, juan da!

Bainan, halarik ere, zer juan zakote hainitzeri? Nigar chorta zonbeit bai eginen! Hasperenetan bai jarriko! Zonbeit oraino nolako preariotan bai sustatuko! Bainan gero?... Deus ez!... lo!... lehengo lazokeria hartara berritz laster eroriko dire.

Traideak anharteak juanak ditzauzku; serorak juan; haurrak eskoletan, eriak eri-etchetan, Jainkorik gabekoen eskuetan gelditu behar ditzauzku; gaichtaginak orotan nausitzen hari dire, trufatzen direla bai gure Jainkoaz, bai gure erresumaz, bai gure libertateaz....

Eta Jainkotiarrak?... Ah! Jainkotiarrak... lo!... bethi lo!...

Armada bat baginduen harren ederra, harren azkarra, harren bildua eta ongi aditua, mundu guzia espantiturik eta jelosturik zeraukana. Marigna bat ere parerik gabekoa. Batzuen eta bertzen artean gaichtaginak nahaskeria gorriak phizoten hari ditu... Bainan, zer diot oraino?... Hurbilagotik, barnagodanik gogorrenak berak hunki ditzazkena, zertan dira gure izanezko, gure diruzko zergak berak?... Ezin aithortuzko heinian. Eta zer? ez dakizuetea, zuek guziek, zuen izan pitta kesatik altchatzen hari zaritenek?...

Jakin bai, biziki beldur ere; bainan, orhoitzeko artea jina denean, boz-emaileak hargatik berdin lazo!

Ongi achola dire bai, holako horiek, karrika bethean ohoinak nausi badira ere, egun argi bethean gizonak gizona garbitzen badu ere, zer juan zeie, bertzeen kalteak, berak deskantsu eta gerizan badire?...

Alta bizkitartean, ez da bada gure baithan erlisionea arras galdua ere! Bizkitartean ohartuak gare bada Juduen jazartzeko manerari ere. Orai arte gorderik eta ilhun beltzka jokatzera hertsatuak zirenak, Trane-Maçon tzar horiek berak bizkitartean ezagutzen ikhasi dugu; gaichtaginkeriarik egin nahi badute, agerian egitera behar dira menturatu.

Zer? Noizbeil bederen, ez segur berehalakoan, authortu behar da, aphezak berak, guzien beharra badela edirenik azkenean, aphezak berak khechatu zitzauzku, altchatu dira hek ere, hauzian parte hartzerat ausartatu!

Bainan halarik ere gure erresuma ttipitzen hari, ahultzen, batasun eskasaz behin, bainan guziz lazokeriaz eta ez acholaz. Gaitza gure baithan dugu... Erran behar dea?... Ez diogu elgar jasan!...

* * *

Pax hominibus bona voluntatis!

Zuek beraz, Eskualdun laborariak, zuek guziz, gazte lagun maitheak, noiz ohartuko othe zarete bada zihaurren ona zertan diteken? Noiz edirenen ahalko duzue bada zuen zuzenak zertarainokoak ditazken eta diren ere? Noiz bada sinetsi nahiko duzue zuen indarra batasunean ditakela bakharrik. Ai etsaiak badaki hori, eta hori dakielakotz egin du delako "bloc" hura, erran nahi da, bildua eta josia dagoela. Hortan barne direnek elgar ongi aditzen eta laguntzen dute bai! Hara zertako den azkar.

Bertzek egiten dutena ez duguia guk ere egiten ahal?

Bai, naski bai!... Nahi badugu... Nahi izan behar baita!..

Tax! Bakea beraz, Herritar onak, bakea guzien artean. Elgar adituz, elgar maithatuz eta lagunduz bethekso dugu Jaunaren nahia eta legea.

Eta nola bertze orduz, Judeako borthuetan, Aingeruen gonbiduak iatzarrarazirik, artzainak altchatu eta Betelemeko barruki Saindurat itzuli baitziren; erna hortik, gazte maiteak. Badugu guk ere billekhu bat chede onezko gizon guzieri borthak zabaldurik dagozkana. Atzar gaiten, hots beratz, eta goazin Eskualdun Onaren etcherat. Bil elgarretara! Elgarrekin ikhus zer den gure egitekoa, eta loth lanari! Uzta ederra da, langileak bakharrik eskachko!..

Bai ala ez, nahi duzuetea gure Herri maite hau altcha dadien, lehen munduan zeraukan lerroa berriz har dezan? Nahi duzuetea

zuey erlisionea begiratu? Frane-Maçoy kar horien gathibotasun ahalgegarrizko gatteak hautsi nahi ditutzuetea! Estualdun on nahi zaretea izan?

Lotu beraz lanari. Eta norbeit estas zenaz geroz, iratzhuts norbeit bat baino gehiago, asko norbeit bazaretela, eta zuzen dena behar duzuela.

Arteka gaichtoan gare.

Ez uzkur izan bada. Ba edo ez da, bil edo bizi, Jainkoarentzat, gure Herriarentzat, gure Sinesteta eta Libertate Saindu arentzat!

Jettari.

OROTARIK

17

'Zerbait ouik ere..!

Orotarik

Zerbait onik ere!

Oraikoan ere emaztekier buruz solasa; ba eta ez gero batere khecharaztekoa, nahi baitut alabainan heyek ere irakur dezaten Eskualdun ona.....

Gathuak eta emaztekiak bethi aphaintzen ari direla, hum! ez zitzaukun hori soberarik agradatzen! Ez nintzan nihaur ere griñarik gabe, egia guziak ez baitira naski erraiteko. Urrikirik ez, eta bizkitartean, halako bat banuen. Alo beraz! ororen ahanzteko, huna ichtoriogno bat Ameriketan gerthatua.

Mañuela Gomez da 18 urthetako neskatcha gazte bat. Aita auzaphez ~~maira~~ du Linores-eko hirian. Alabak bazituen auzaphezgoko anhitz gauza ikhasirik bere aitarekin. Baliatu zako, ezik aita eritu zakonian sukhar borthitz batekin, alabak, bere aita ongi arthatzen zuelarik, « mairiako » lan guziak egin ditu.

Espantiturik horiek ikhustean, saritzat eman diote « medaila » urhezko bat.

x
x x

Abokatak ere badituqu orai emazte-
-kietan. Buruz aztar balin badira,
mihia segurik zalhu izanen dute.

Abokats – ez dut erran nahi abokat
kharats – abokats horietarik batek beraz
auzia irabazi bezala du Golosako "tribu-
-nal" batean. Jujak ez balitu bere thalen-
-duaz choratu, lurreratko zen botiga guzia.

Eta erranen duzue gero emazte-
-kiek ez dutela deus aditzen legeko gau-
-zetan, ez direla on botz emaiteko eta
deputatu "presentatzeko"!!

———.———

Oroitarik

Soldadogotik jin eta.

Aitak semeari: « Ukhan dutka « punizionerik? »

Semiak: « Ala jintsot! Eta orain, bertziak bertze, bortz egun « sala de poliza »!

Aitak: « Zertako? »

Semiak: « Baizik eta, frera bezala, « Kongregazionetko » nintzala! »

Aitak: « Hemen errairen diuk « Kongrea » Bainan, zer? Hortako izan panitua!

Semiak: « Ba eta Kaporalak zioena « motif » garratza omen da hori!

Aitak: « Badiaguk hoberik!!

---

11 Décembre 1903

[Kontakizun laburrak]

Jachtagin bat mañotaturik zen bi jandarmen artean, eta auzaphezak galdatzen dio: « Lehenago ere Kondenatua izan zira ?
— Zappi urthe huntan, ez Jauna. — Nolaz hori ?
— Oi, Jauna, zappi urthe huntan preso nintzan. »

Mochkor bat eremaiten dute jandarmek jujearen aitzinera ; jujeak galtzitzen du eta azkenean erraiten dio : « Oraikoan uzten zaitut deus ere gabe ; bainan ez zaitela berriz itsul hunara ! — Jauna, errozute hori jandarmeri ; ni, egun ere, egonen nintzen hunara gabe.

Bertze bati jujeak erraiten dio : « Bethi hemen zira ! » — « O Jauna, ihardesten dio bertzeak ; zu ere, bogoi eta hamar urthe huntan, bethi hemen ikusten zaitut. »

Gizon gizaizo bat hirian gerthatu zen
lineta edo misera saltzaile baten etche
aitzinean; sartzen da eta galdatzen du
lineta pare bat irakurtzeko; saltzaileak
ekartzen dio andana bat aitzinera hauta
dezan; liburu bat eskuan ikertzen dituzte
oro; bainan ez baitzen harentzat on zenik,
saltzaileak erraiten dio: « Behar bada,
bichta laburra duzu? — Baditake. » Eta hor
hasten dira berriz ere bertze andana
baten miatzen; batean liburua hurbil,

bertzean urruntchago ezar; bainan baduk hoberik! bihirik ezin atzeman behar bezalakorik.

orduan saltzaileak galdegiten dio gizaizoari: « Badakizuia bederen irakurtzen? — Zer mila debru! banaki irakurtzen, ez nuke zure luneta beharrik. »

Eta fera futro atheratzen da etchetik.

X

Papiers

de l'abbé Hiriart - Urruty

directeur de l'Eskualdun Ona

Contenu : (1) Lettre de L. Etcheverry. – (2) Lettre du D. Constantin – (3) 1 lettre et un conte souletin de l'abbé Foix (séminariste) – (4) 1 lettre de E. Fischer – (5) Bertsu berriak de Uztariztarra. – (6) 1 lettre, Haitza et a Ihia, 2 exemplaires Gure Herria de Dolhagaray – (7) Framazonak (brouillon de réclame) – (8) Notes pour l'histoire du Pays (fragment) – (9) Lettre du Fr. Juvénal-Martyr – (10) Lettre des Conseillers municipaux de Halson – (11) Santa Katalin – (12) Vers de Hyppolyte Pié et lettre du même – (13) Lettre de Duhau – (14) Vers de Paboilleta – (15) Lettre de Pochelon – (16) Atzar gaiten (article) – (17) Trois feuilles Orotarik – (18) Trois autres feuillets du même genre – 19 Ez dago 1 enveloppe adressée à l'abbé Dibildox Larresore par Dolhagaray sans doute – (20) Un bout de papier qui accompagnait peut-être la lettre du Fr. Juvénal. –

P. Lafitte 25 - Mai - 1929

FSC
MIXTO
FSC® C001636